



Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua

Foru Dekretua



**Erraz irakurtzeko
edizioa**

Koordinatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia. Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila).

Irakurketa errazerako egokitzapena: Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalatzeko du.

Lehenengo edizioa: 2020ko maiatza

© Bizkaiko Foru Aldundia- Diputación Foral de Bizkaia

www.bizkaia.eus

© Ilustrazioen: M. Corretge




Lege-gordailua: BI-756-2020

Foru Dekretua



Erraz irakurtzeko edizioa

Aurkibidea

Sarrera	5
 Zer da emakumeen partaidetzarako Kontseilua?	7
 Zertarako sortzen da Kontseilu hori?	8
 Zer lortu nahi du?	8
 Zein dira Kontseiluaren eginkizunak?	9
 Nor izan daiteke Kontseiluko kide?	10
<ul style="list-style-type: none">• Elkarte feministak, emakume elkarteak, emakume-taldeak eta kolektibo feministak eta entitate mistoetako berdintasun-arloak.• Nola izan Kontseiluko kide/Nola utzi kide izateari.	
 Nola dago antolaturik Kontseilua?	12
<ul style="list-style-type: none">• Batzarra<ul style="list-style-type: none">- Nork osatzen duen- Eginkizunak- Bilkurak• Presidentetza<ul style="list-style-type: none">- Nor den- Eginkizunak• Presidenteordetza<ul style="list-style-type: none">- Nor den- Eginkizunak• Idazkaritza<ul style="list-style-type: none">- Nor den- Eginkizunak• Batzorde Kudeatzailea<ul style="list-style-type: none">- Nork osatzen duen- Eginkizunak- Bilkurak• Lan-Batzordeak	
 Erabakiak hartzea	17
<ul style="list-style-type: none">• Batzarrean	



Sarrera


Irakurtzen ari zaren dokumentua Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzen duen Foru-Dekretuaren bertsio irakurterraza da.

2020ko otsailaren 18an onartu zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak bultzaturik. Batzar Nagusiek 2020ko maiatzaren 6an berretsi zuten.

Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko dituen politiken emaitza da. Dekretu horretan, Bizkaiko emakumeek parte hartzeko organo baten ezaugarriak, helburuak, antolaera eta funtzionamendua ezartzen dira.

Organo hori Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoaren partaidetza-eta kolaborazio-egituran txertaturik dago.

Dekretuaren testua Irakurketa Errazaren moldera egokitu da, herritar guztiek irakur ahal izan dezaten.





Zein arauditan oinarritzen da?

Dekretu hau honako arau hauetan oinarritzen da:

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legea (2005)**

Besteak beste, ezartzen du foru-aldundiek berdintasun-politika eraginkorrak sustatuko dituztela lurralde historikoetan.

Eta, horretarako, harremanak eta partaidetza- zein lankidetzak bideak mantenduko dituztela entitate publiko eta pribatuekin.

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Araua (2018)**

8. artikulua.

Berdintasunerako Organoa sortzen du BFaren egituraren barruan.

Bere eginkizunetako bat da Bizkaiko mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarteekin harremanak izateko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzea eta koordinatzea.

18. artikulua.

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzen du.

Dekretu honen bidez, partaidetza-prozesu baten ondorioz, Kontseiluaren ezaugarriak eta funtzionamendua ezartzen dira. Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsiko dute dekretu hau.

Nola garatu zen parte hartzeko prozesua?

Dekretu hau 2018ko azaroan hasitako partaidetza-prozesu baten emaitza da, Kontseiluan emakumeen hainbat ikuspegi eta esperientzia txertatzeko helburuarekin.

Horretarako, lehenik eta behin, talde feministak eta emakumeen elkarteak eta berdintasun-arloak zituzten beste entitate batzuk bilatu eta identifikatu ziren Bizkaian.

Gero, elkarrizketak eta tailerrak egin ziren parte-hartzaileekin.

Azkenik, **prozesuaren itzulera-saio** bat egin zen parte-hartzaileekin.

● **Prozesuaren itzulera-saioa:**
Saio honetan prozesuaren, kontrastearen eta geroko urratsen inguruko informazioa ematen zaie parte-hartzaileei.



Zer da emakumeen partaidetzarako Kontseilua?

Kontseilua elkarrizketa-gune bat da, eta bertan parte har dezakete Bizkaian emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten elkarte feministek, emakumeen taldeek, kolektibo feministek eta erakunde mistoetako berdintasun-arloek.

Kontseiluak honelako gunea izan nahi du:

- horizontala eta gertukoa
- era askotako emakumeen partaidetza sustatzekoa
- emakumeek elkar topatzeko eta elkarren kontzientzia hartzekoa
- interes erkideak defendatzekoa.

Kontseiluak **gardentasunaren** eta **interseksionalitatearen**

printzipioei jarraitzen die. Kide anitzeko organoa da.

BFAren Berdintasunerako Organoari atxikita dago, eta aholku ematen dio.

Organo horrek kontsulta egiten dio Kontseiluari, entzun egiten dio eta haren proposamenei erantzun.

● **Gardentasuna:** Administrazio publikoei dagokie, eta esan nahi du herritarrek aukera izan behar dutela informazio publikoa era libre, erraz eta irisgarrian erabiltzeko eta haren arduradunak nor diren jakiteko, bai eta zer, nola, noiz eta zenbat gastatzen duten gauzatzen dituzten politiketan.

● **Interseksionalitatea:** Emakume izateak eta beste faktore batzuek, hala nola adinak, jatorriak, arrazak eta abarrek, egoera espezifikoak biziarazten dizkiete emakumeei. Kontseiluak kontuan hartu asmo ditu, partaidetzan dibertsitatea bermatzeko.



Zertarako sortzen da Kontseilu hau?

Kontseilua sortu da espazio komun bat eskaintzeko, non harremanak sortuko diren aipaturiko emakumeen taldeen artean, eta gogoeta eta proposamenak egingo diren, ikuspegi feminista batetik.

Zer lortu nahi du?

- Bizkaiko emakumeen **ahalduntze** pertsonala eta kolektiboa.
- Kolektibo feministen, emakume-elkarte eta -taldeen eta beste entitate batzuen **partaidetza**, berdintasun-politika publikoen prestakuntzan, aplikatzeko eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- **Komunikazioa** jarraia izatea foru-sektore publikoaren eta Kontseiluaren artean, politika publikoek ikuspegi feminista bat izan dezaten.
- **Eragin** transbertsala izatea foru-politika publikoetan, kontuan har daitezten emakumeen eskubideak eta interesak.

● **Ahalduntzea:** Testuinguru horretan, emakumeek kontzientzia indibidual, kolektibo, politiko eta soziala hartzeko prozesuari dagokio. Horrek ahalbidetzen du haien partaidetza areagotzea erabakiak hartzeko prozesuetan, agintearen erabileran eta eragiteko gaitasunean.





Zeintzuk dira Kontseiluaren eginkizunak?

• Barnekoak (Kontseiluko kideei dagozkienak)

- Kontseiluko kideen arteko komunikazioa eta harremanak sustatzea, elkartzeko, elkar ezagutzeko, sarean lan egiteko eta esperientziak partekatzeko.
- Emakumeen kolektiboak indartzen laguntzea.
- Bere osieran Bizkaiko era askotako emakumeen ordezkariak egon daitezen laguntzea.

• Kanpokoak (BFArekiko harremana)

- Elkartea feministen zein emakumeen elkarteen eta BFaren arteko komunikazioa, lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea.
- Parte hartzea Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako Foru Planean: hura diseinatzen, haren jarraipena eta ebaluazioa egiten. Txostenak egin ahal izango ditu.
- Informazioa jasotzea aurretiaz Berdintasunerako Organoak garatzen dituen politikei buruz.
- Bizkaiko Foru Aldundiko sailen berdintasun-politikak aztertzea, eta, Berdintasunerako Organoaren bidez, sailei proposamenak helarazi eta haien erantzuna ezagutzea.
- Organo eskudunei jakinaraztea BFaren barruan gertatzen diren tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioen diskriminazioak edo urraketak.
- Bidea ematea Bizkaiko emakumeen beharrei eta aldarrikapenei buruzko proposamenak helarazteko BFaren politikei.

• Kanpokoak (herritarrekiko harremana)

- Bizkaian berdintasun-arloko arauak betetzeko neurriak proposatzea eta bultzatzea; bereziki, 4/2018 Foru Arauari dagozkionak.
- Indarkeria matxistaren mota guztiak ikusaraztea eta salatzea.
- Kontseiluaren jarduketan informazioa ematea herritarrei.




Nor izan daiteke Kontseiluko kide?



Erregistraturik ez dauden entitateak

- Emakumeen taldeak
- Kolektibo feministak



Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratutako entitateak

- Elkarte feministak
- Emakumeen elkarteak
- **Entitateetako arloak**



- **Entitateetako arloak:** Zuen elkartearen estatutuek jaso behar dute berdintasun arloak funtzionatzeko autonomia duela, bai eta ordezkaritza-organo propioak ere.

Entitate horiek guztiek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- Beren jarduteko eremua Bizkaia izatea.
- Ezin dute izan irabaziak lortzeko asmorik.
- Barne egitura eta funtzionamendu demokratikoa izan behar dute.
- Beren helburua berdintasuna sustatzea eta **haren alde lan egitea** dela jaso behar dute estatutuetan edo hala dela frogatu beren jarduerekin.

- Irizpideak **autoantolaketarako dokumentuan** islatuko dira: agiri horretan, Kontseiluaren antolaera jasotzen da; malgua da eta aldaketak egitera irekita dago, betiere Batzarrean onetsi beharko direlarik.





Kontseiluko kide izateko, nahitaez...	Kontseiluko kide izateari utziko zaio baldin eta...
<ul style="list-style-type: none">• Aurkeztu behar zaizkio 3 dokumentu Batzorde Kudeatzaileari:<ul style="list-style-type: none">- onarpen-eskabidea- eskatzen diren agiriak- Kontseiluan parte hartzeko eta haren helburuak bereganatzeko konpromiso sinatua• Batzarraren onarpena jaso behar da.	<ul style="list-style-type: none">• Entitateak hala erabaki eta Batzorde Kudeatzaileari jakinarazten badio.• Betekizunak betetzeari utziz edo bere jarduera uzten badu.• Batzarraren 2 herenek hala erabakitzen badute, Kontseiluaren xedearen aurkako jokabide edo jardueren aurrean.• Batzar 2 jarraian huts eginez gero edo guztira 5 huts eginez gero.
<p>Kontseiluko kide izateari uzten dion entitate bat berriro izan daiteke kide, Kontseilua uztea ekarri zuten arrazoiak desagertuz gero.</p>	







Nola dago antolaturik Kontseilua?




	Osaera	Eginkizunak	Bilkurak
<p>BATZARRA</p> <p>Organo erabakitzaile nagusia</p> 	<p>Ahotsa eta botoa dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Presidentea • Presidenteordea • Idazkaria • Kolektiboen ordezkariak (2 pertsona taldeko gehenez eta boto bakarrarekin) <p>Ahotsarekin eta botorik gabe:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakume gonbidatuak (adituak, laguntzaileak...) 	<ul style="list-style-type: none"> • Definitu eta onartu: <ul style="list-style-type: none"> - jarduketa-ildoak - Lan-Batzordeak. • Ahotsa eman eta parte-hartzea bermatzea • Onartzea: <ul style="list-style-type: none"> - parte hartzeko eskaerak - kargu-uzteak - batzordeen txostenak, eztabaidatzeko - autoantolakuntza-agiria eta haren aldaketak. • Aukeratu eta kargutik kentzea: <ul style="list-style-type: none"> - Presidentea eta haren ordezkoa - Batzorde Kudeatzailea. • Berdintasunerako Foru Planean parte hartzea. • Kontseiluaren eskaeren informazioa ematea BFAko sailei. • Aurretiaz jasotzea Berdintasunerako Organoaren politiken informazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Urtean 2 aldiz gutxienez, ohiko bilera. • Ezohiko bilerak, Kontseiluaren edo Batzorde Kudeatzailearen erdiaren eskariz. • Presidentearen deialdia: Gutxienez, 20 egun lehenago, gai-zerrenda eta dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz direla. • Bilkurak egiten diren tokiek iristeko modukoak izan behar dute eta dibertsitate funtzionala edo organikoa duten emakumeek behar dituzten baliabideak izango dituzte; baliabideok aurretiaz eskatu beharko dira.



	Osaera	Eginkizunak
<p>PRESIDENTZA</p> 	<p>Emakume bat, Kontseiluan dauden elkarteetarikoen baten ordezkaria.</p> <p>Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen buru ere bada.</p> <p>Hautaketa, kargu-uztea eta agintaldiaren iraupena, autoantolaketarako dokumentuan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bilerarako deialdia egin, zuzendu eta moderatu: <ul style="list-style-type: none"> - Batzarra - Batzorde Kudeatzailea. • Bermatzea betetzen direla Batzorde Kudeatzailearen erabakiak. • Bilkura guztietara joan behar du, baina ordezkari bat eskuordetu dezake eginkizun batzuetarako. • 3 falta jarraian izanez gero, justifikatu gabe, ordezkariak hartuko du haren kargua.

	Osaera	Eginkizunak
<p>PRESIDENTE-ORDEZKARIA</p> 	<p>Berdintasunerako Organoaren burua.</p> <p>Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen mahaiburuordea ere bada.</p> <p>Ordezkaritza bat izango du, Batzorde Kudeatzailearen aktak jasoko dituena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bilkuretara joatea: <ul style="list-style-type: none"> - Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen ohiko bilkuretara - bi organotako aparteko bilkuretara, hala eskatzen denean. • Kontseilurako behar den informazioa eta dokumentazioa ematea, eta BFari helaraztea bere proposamenak. • Bermatzea betetzen direla Batzorde Kudeatzailearen erabakiak.



	Osaera	Eginkizunak
IDAZKARITZA 	<p>Berdintasunerako Organoko kide bat.</p> <p>Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen idazkari ere bada.</p> <p>Badu ahotsa, baina botorik ez.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Bilkura guztietara joatea.• Bilkuretarako deia egitea, Presidenteak edo Presidenteordeak eskatuz gero.• Bilkuretako aktak egitea.• Bidaltzen dizkioten dokumentuak eta datuak jasotzea.• Egunean izatea Kontseiluko organizazioen zerrenda, haien parte-hartzaile eta ordezkok jasorik.• Kontseiluaren erabakiak legezkoak direla eta betetzen direla zaintzea.

	Osaera	Eginkizunak	Bilkurak
<p style="text-align: center;">BATZORDE KUDEATZAILEA</p> 	<p>Ahotsa eta botoa dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Presidentea - deialdia egin, zuzendu eta moderatu egiten du • Presidenteordea. • Idazkaria. <p>Kontseiluko kide berak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 7 batzordekide (eta ordezkokoak) <ul style="list-style-type: none"> -Kolektiboan ordezkariak gutxienez 2 heren) eta entitateetako arloenak -Batzarrak aukeratzen ditu, 2 urterako (2 urte luza daiteke) -Aktak jasotzen dituzte. <p>Ahotsarekin eta botorik gabe:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakume gonbidatuak (adituak, laguntzaileak...) • Berdintasunerako Organoko teknikariak. 	<p>Kontseiluari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontseiluaren jarduerak sustatu eta koordinatzea. • Batzordea partaidetzazko toki bat izan dadila zaintzea, non iritzi guztiak errespetatzen diren. • Batzordean parte hartzen duten elkarten arteko komunikazioa erraztea. • Batzordekide izateko eta uzteko eskaerak gestionatzea. <p>Batzarrari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bilkuretako gai-zerrenda prestatzea. • Urteko jarduketa-plana aurkeztea. • Lan-Batzordeak proposatzea. • Hartzen diren erabakiak gestionatzea eta haien jarraipena egitea. • Kontseiluko kide izateko eta Kontseilua uzteko eskaerak gestionatzea. <p>Lan-Batzordeei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Batzordeon jarduketak koordinatzea eta haien jarraipena egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Urtean 4 aldiz gutxienez, ohiko bilera. • Ezohiko bilerak, 4 kidek gutxienez eskatzen dutenean. • Presidenteak bilkura guztietara joan behar du, baina ordezkoko bat eskuordetu dezake eginkizun batzuetarako. • 3 falta jarraian izanez gero, justifikatu gabe, ordezkoei hartuko dute kargua.



Lan-Batzordeak

Lan-Batzordeak aldi baterako edo modu iraunkorrean sortuko dira, gai zehatzak aztertu eta garatzeko.

Batzarrak definituko eta onartuko ditu.

Berdintasunerako Organoko teknikarien, emakume adituen edo laguntzaileen laguntza izan dezakete.

Batzordeetako kideek izango dute ahotsa baina ez botorik.



Erabakiak hartzea

Hau da Kontseiluan erabakiak hartzeko behar den gutxieneko boto-kopurua:

- **Batzarra eratzeko:** kideen heren bat.
- **Batzorde Kudeatzailea eratzeko:** 5 emakume.
- **Bi organoon erabakiak onartzeko:** aho batez.

Bozketa bi egin eta ez bada erabakirik onartzen, botoen gehiengo soilez onartuko dira (erdia+1).

Salbuespena: autoantolakuntza-dokumentuaren onarpena, 2 herenen gehiengoa beharko da.